

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure zerbitzua bezeroengan helarazteko erabiliko ditugun kanalak zehaztu eta gero, ezinbestekoa izango da bezero berriak erakartzea eta horiek mantentzea. Horretarako, garrantzitsua izango da ondo zehaztea bezeroekin nolako harremana izango dugun.

Bezeroekin mantendu nahi dugun harremanen artean mota desberdinak aurki daitezke. Harremana pertsonala izan daiteke, bezero bakoitzarekin aurrez-aurre egonez. Beste mota bat, automatizatua da, web-aplikazioen edota erantzungailu automatikoen bitartez egiten dena.

Izan nahi dugun bezeroarekiko harremanaz hitz egiten dugunean, esan beharra dago harreman mota ezberdinak sor daitezkeela aldi berean enpresa baten eta merkatu-segmentu baten artean; hala nola, laguntza pertsonala, dedikatutako laguntza pertsonala, autozerbitzua, automatizatutako zerbitzuak, komunitateak eta sorrera-kidetza.



Bezero berriak erakartzeko eta ditugunak mantentzeko zerbitzu automatizatua webgunearen bitartez erabiliko dugu. Horretarako, wix plataforma bidez blog bat sortuko dugu erabiltzailentzat. Modu horretan, bezeroak beren iradokizunak egin ahal izango dituzte supermerkatu batera joan behar izan gabe.

WIX

Horretaz gain, blog honetan bezeroak haien zalantzak argitu ahal izango dituzte arretarako zerbitzu pertsonalizatuaren bidez. Izan ere, blog honetan galderak egiteko atal bat izango dute. Aipatzekoa da ere, blog honetan gure aplikazioaren inguruko informazio guztia eskuragarri izango dutela, baita aplikazioan egiten diren berrikuntza guztiak ere.

Hona hemen gure blogaren link-a:
<https://adrianaarobes.wixsite.com/superapp>